

# BALEIKE



Icahn School  
of Medicine at  
Mount  
Sinai

Abilities  
Research Center

MARI MAR CORTES

**MEDIKUNTZA  
HOBETZEKO  
LANEAN**







# ekosistema hezitzailea

Hezkuntzaren bidez, denon artean,  
herria indartzeko proiektua



Zumaiako  
Herri  
Eskola

HH LH 943-86 10 37 - DBH BATXI 943-89 92 53  
zumaiahi.eus zumaiabhi.eus





# BALEIKE 283

2019-URTARRILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
MARI MAR CORTES

## Aurkibidea

- |    |  |    |  |
|----|--|----|--|
| 5  | <b>Aurrena</b> Gorka Zabaleta<br><i>Errekazulorantz</i>  | 28 | <b>Plazan bazan</b>  |
| 6  | <b>Hitz tantak</b> Izaskun Urbietta Esnal<br><i>Joxe Mari Aramendi</i>                                 | 31 | <b>Osasuna</b> Rosa Azkue<br><i>Erorketak prebenitzeko aholkuak 2</i>                      |
| 8  | <b>Izpiak eta hizkiak</b> David Juliá<br><i>Rajasthan, India, 2017ko abendua</i>                       | 33 | <b>Heziketa</b> Izar Arregi<br><i>Banatu diren gurasoei gutuna</i>                         |
| 10 | <b>Hainbat aburu</b> Maria Alberdi,<br>Zumaiaiko emakume etxearen<br>izenean<br><i>Emakumeon etxea</i> | 34 | <b>Zientzia eta ingurumena</b><br>Asier Hilario<br><i>Euskal kostaldeko beste Flyschak</i> |
| 11 | <b>Errematea</b> Sara Ibarburen<br><i>Erroka berriak</i>   | 38 | <b>Orduan bai</b> Imanol Azkue<br><i>Libe Alkiza: eseri lasai gurekin</i>                  |
| 13 | <b>Erreportajea</b> Izaskun Urbietta Esnal<br><i>Pasioa ofizio bihurtuta</i>                           | 42 | <b>Kultura</b> Juan Luis Romatet<br><i>Espazioko mirariak denon eskura</i>                 |
| 18 | <b>Erreportajea</b><br>Maria Maya Manterola<br><i>Musikaren erritmoak marrastan</i>                    | 43 | <b>Agenda</b>  |
| 22 | <b>Erretratua</b> Maialen Odriozola<br><i>Puzlea osatzen</i>   | 44 | <b>Literatura</b> Asier Arakistain<br><i>Neurosi baten historia</i>                        |
| 26 | <b>Bazkide kluba</b>   | 45 | <b>Nire txanda</b> Izaskun Ruiz<br><i>Irakasten ikasten</i>                                |
|    |  | 46 | <b>Azkena</b> Juan Luis Romatet<br><i>Polemiken artean</i>                                 |

# BALEIKE

### Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea  
Foronda Kultur Etxea,  
Odieta, 2.  
943-86 15 45  
aldizkaria@baleike.eus  
www.baleike.eus

### Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia  
**Zuzendaria**  
Gorka Zabaleta  
gorka@baleike.eus  
**Erredaktore taldea**  
Juan Luis Romatet

Izaskun Urbietta  
Maria Maya Manterola  
**Diseinu arduraduna**  
Ane Azkue  
**Hizkuntza arduraduna**  
Imanol Azkue Ibarbia  
**Publizitate arduraduna**

Felix Aizpurua  
publizitatea@baleike.eus

**Administrazio arduraduna**  
Uxua Ostolaza  
administrazioa@baleike.eus

### Inprimategia

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)  
**Lege Gordailua:**  
SS-405/94  
**ISSN:** 1136-8594  
**Tirada:** 800 ale

# TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiaiko Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**k**  
kutxabank

# PUBLIZITATEA



**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943-86 23 09



**diseinua inprimatzea**

Alai 8, 20750 Zumaiia (Gipuzkoa)  
tel: 943 14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20  
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com



**Agurtzane Okindegia**

Erribera 2 • 943-86 21 52



**AIZPURUA LIBRURU DENDA**

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943-86 15 69



**AL-ANON**

Alkoholikoek seride eta lagunen elkartera  
Tel. 650 26 59 63

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00  
larunbatetan, 19:00-21:00



**ALBERDI dekorazioa**

- Eskaiola
- Pladur-a

696 72 61 88  
943-14 32 61



**Amama taberna**


Tel.: 943-54 31 64  
amamataberna@gmail.com  
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaiia (Gipuzkoa)

**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4  
Tel.: 943-86 25 32

Arotzategia: Santiago, 40  
Tel.: 943-86 16 31



**OKANDEGIA Arkupe**

Nagusia, 2 • tel. 943-86 16 21  
ZUMAIIA

**OGI-EDER**



**Arruti ARROPA BERRA**

ANGELES SORAZU 1 BEHEA  
943-54 34 06  
20750 ZUMAIIA (GIPUZKOA)



**ATARI TABERNA**

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69



**BOSCH Service** Bosch Car Service

**Autos Zumaiia**

Gasolina injezioa  
Diesel injezioa  
Elektrizitatea/Elektronika  
Piztea

Balaztak, ABS, ESP  
Mantentze mekanika  
Motorraren mekanika  
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5  
Tel. 943-86 14 85  
autoszumaia@bosch-bcs.com

**Azkue**

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, beheak tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51  
elena@ricardoazkue.com fax. 943-86 27 48



**BAKUN**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25  
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06  
bakun@euskalnet.net



**Basodi albaitaritzia** Albaitaria Iñaki Gormendia

Basodi, 7, beheak - tel. 943-14 33 10  
veterinari@basadclinicvet.com  
www.basadclinicvet.com

Gobez: 11-13 / Arratsaldeak: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean bita  
Lamiakietarako: 605 72 87 07 Ebsez ebeko zerbitzua



**BASUSTA**  
erretegia • asador

José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25  
20750 Zumaiia (Gipuzkoa)

Tel.: 943-86 20 73  
943-86 04 38  
asadorbassuta@hotmail.com



**BEHEKO PLAZA**  
taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

**BERRITUA**

Eusebio Gurrutxaga plaza  
Tel. 943-86 17 00



# Errekazulorantz



GORKA ZABALETA

**O**raindik ez duzu sinesten. Ez duzu ulertzen nola gertatu den. "Asteburua primeran zihoan, ba!". Interneten hain puntuazio altua zeukan jatetxe hura ez zaizue hain ona iruditu, baina, gainontzean, ahizpak aholkatutako txoko guztiak ezagutzeko denbora eman dizue, jende jatorra egokitu zaizue, Madrilen ez daukazuen aire garbia arnastu duzue... "Baina, hau? Zer gertatu da?", galdetzen diozu, behin eta berriz, zeure buruari. "Kotxea hartu baino lehen, mugikorrean Google Mapsi galdetu diogu: 'Algorri', eta ederki markatu digu, ba, bidea...".

Goizean goiz bapo gosalduta abiatu zarete, zeu txofer eta bikotekidea uneoro mugikorrari begira, Googlek mapan markatutako arrasto urdina ez galtzeko. Pasa zarete Arritokieta ondotik, iritsi zarete Santa Klarako bidegurutzera, "Hemen ez da, segi errepidean aurrera"; Agerre ezkerrean utzi duzue, "Erne, bertan gaude eta!". Iritsi zarete azkenean bidegurutzera. Gurdibide bat da. Kotxea gelditu duzu une batez. "Hemendik?"; "Bai, hala jartzen du"; "Baina..."; "Ikusi mapan, hala markatzen du". "Tira, hala jartzen badu", pentsatu duzu. Kotxea errepide bazterrean uzteko tarte bat badago, eta bidea oinez jarritu; baina, zer demontre, ez duzue alferrik ekarri noranahiko itxura duen SUV estiloko kotxe berria. "Goazen, ba!".

Abiatu zarete, bigarren martxa sartuta, tentuz baina konfiantza osoarekin, laster Algorriko labarra ikusteko ilusioarekin. Segituan, bihurgunea eskuinaldera. Ikuspegia zabaldu egin da. Aurrean itsasoa ikusten da labar artean; behean, errekazuloa. "Ondo al goaz?", galdetu diozu aldamenekoari; "Bai, hala markatzen du, marra urdinaren gainetik goaz". "Aurrera, ba". Bidea estutu egin da, maldan behera hasi zarete, eta orduan komeriak. Jabetu zarete akatsaz. Saiatu zara tranpa hartatik ateratzen, baina konturatzerako kotxea bidetik irten eta zelaian sartu zara. Malda handia dago eta kotxea ezin dominatu zabilta. Bazoazte belardian behera, errekazulorantz, kotxeak zerbaitekin tupust egin eta gelditu den arte. Minik ez duzue hartu, zorionez.

Laguntza eske deika hasi zaretenerako, han azaldu zaizkizue inguruko baserritarrak, traktore batekin. Di-da batean atera dute kotxea, bidegurutzeraino. Errieta pixka bat egin dizuete, eta kexu agertu dira, ez zareteko lehenak: "Dagokionak zerbait egin beharko du, seinaleren bat jarri edo Googleri abisatu, hau ez da eta kotxeentzako bidea". Onik zaudetela ikusita, beraien zereginetara alde egin dute. Laguna kotxean sartu da. Zeu bidegurutzeari begira gelditu zara. Eta oraindik ez duzu sinesten. Ezin duzu ulertu nola gertatu den. "Ez dago bidea mozten duen seinalerik, Googlek hemendik ekarri gaitu... Baina nora begira geunden!". ■■■

**EZ DUZUE ALFERRIK  
EKARRI NORANAHIKO  
ITXURA DUEN SUV  
ESTILOKO KOTXE  
BERRIA**



# Joxe Mari Aramendi

---

**TESTUA:** IZASKUN URBIETA ESNAL

**ARGAZKIA:** ARNAITZ RUBIO APREA

---

Karakas baserrian jaioa, bertan bizi da gaur egun ere. Baserriko laboreak lantzetik bizi dira, batez ere, baina duela 20 urtetik nekazaritza turismoa ere bada baserria. Mahatsak eta babarrunak dira etxeko produktu nagusiak. Hain zuzen, Tolosako babarruna ekoizten dute, eta, azaroan, Tolosan egiten den lehiaketa ospetsuan, hirugarren izan ziren.

## **Noiztik egiten duzue babarruna?**

Betidanik izan dugu babarruna etxean. Gurasoen bidez ezagutu nuen, eta aitona ere soron lan egiten ikusitakoa naiz. Beste barazki batzuk ere egiten ditugu, baina horiek etxerako izaten dira.

## **Tolosako babarruna bakarrik egiten duzue?**

Bai. Tolosako Babarrunaren Elkartea sortu zenean, bertako bazkide egin ginen eta pixkanaka, urtetik urtera, kantitate handiagoak egiten hasi ginen. Garai batean, kantitate handiak ez zirenean egiten, Zumaiako eta inguruko bezeroei saltzen genien. Orain, Elkartetik saltzen dugu guztia.

## **2018an zenbat babarrun kilo egin dituzue?**

Guztira, 3.500 kilo.

## **Nola egiten duzue babarruna?**

Semearen eta bion artean egiten dugu lana. Maiatzean lurra prestatzen hasten gara, eta ekainean hazia ereiten dugu. Lurrak beroa egon behar du ereiteko, bestela alferrikako lana egitea da, ez delako hazia ongi ernetzen.

## **Zer egiten da ondoren?**

Hesolak sartu, sareak jarri... Lan asko du. Gero, biltzeko garaia iritsi arte, landarea zaindu behar da.

## **Urrian jasotzen da uzta, ezta?**

Hori da. Urria hasierarako mahatsak biltzen bukatzen dugu, eta jarraian, babarrunarekin hasten gara. Ekoizpena jasotzeko jornaleroak kontratatzen ditugu astebetetz edo horrela, eta beste guztia etxekoen artean egiten dugu.

## **Zenbat metro karratu dituzu babarruna ereiteko?**

20.000 metro inguru. Etxearen beheko aldean ditugu lurrak. Goi aldean, berriz, mahastiak.

## **Aski ezaguna da Tolosako babarrunaren lehiaketa. Noiztik hasi zarete joaten?**

Hamar bat urte izango dira. Elkartetik animatu gintuzten, eta, beno, beste ekoizleak ere joaten zirela ikusita, izena eman genuen.

## **Txapelketara joateak aldatu dizue babarruna egiteko era? Edo beti bezala jarraitzen duzue?**

Beti bezala jarraitzen dugu, baina txapelketak ematen du horrelako zirrara bat. Interes gehiago jartzen da azkenean. Denbora luze pasatzen dugu babarrun onenak bereizten.

## **2013an lehen saria lortu zenuten, eta 2017an eta 2018an hirugarren izan zineten. Ez duzue kexatzeko arrazoirik izango.**

Hortxe ibiltzen gara, bai, eta 2013an irabaztea suertatu zen. Zaila izaten da, besteak ere onak izaten dira-eta, baina hirugarren postuarekin ere oso gustura gaude.

## **Zer baloratzen dute?**

Alea bera begiratzten dute, eta gero kozinatu egiten dute. Epaimahaia bost lagunek osatzen dute eta probatu egiten dute, eta haien puntuazioak erabakitzen du nor den irabazlea.

## **Produktu maitatua da babarruna?**

Bai, oso. Arrakasta eta fama handia dauka.

## **Zein da sekretua?**

Lurrak aztertzen ditugu, behar duten ongarria botatzen diegu..., baina sekretu gutxi dauka. Hori bai, prozesu guztia ongi egin behar da hasieratik. Batez ere lurraren berotasunari jartzen diogu arreta.

## **Uzta guztiak ez dira berdinak izango. Inoiz txarrik atera zaizue?**

Bi urtetan utzi dugu babarruna bildu gabe. Zati bat jaso, euria hasi eta gainerakoa alferrik galdu zitzaigun bertan. Urte batean 800 kilo eta bestean 500.

## **Itsasoa gertu daukagu. Horrek eragina du babarrunean?**

Ez dakigu on egiten dion, baina kalterik, behintzat, seguru ezetz. Tomateari, adibidez, on egiten dio itsasoko kresalak; beraz, pentsatzen dut babarrunari ere zerbait egingo diola. ■■■







# Rajasthan, India, 2017ko abendua

**ARGAZKIA ETA TESTUA:** DAVID JULIÁ

Arte Ederrak ikasi izanak hasieratik bideratu du nire estiloa. Argia obsesio bilakatu da nire argazkilaritzan eta bizitzan. Kamera eskuetan izan edo ez, argiarenganako erakarpn bereziz dudala nabaritu dut azkenaldian. Laino artetik sartzen diren eguzki izpiek, ilunabarreko argi magentaren epeltasuna edo suaren argi arkaikoa dira esperientzia estetiko bat izatera eramaten nautenak. Gauaren iluntasunean agertzen diren argi puntualek ere pintura beltzaren bilakaera batera eramaten naute. Egunerokotasunean dugun gehiegizko informazioa ezabatzeko bidea dudala pentsatzen dut maiz.

Bestalde, bidaiatzen hasi nintzenetik, askotan izan dut ijito izaeraren sentazioa nire barnean, leku batean finkatzea ezinezkoa zaidala iruditzen zait, mugitu, bidaiatu, ezagutu eta esploratzeko beharra, nomada izaera. Argazki honetako protagonistak hiru nomada dira. Indian zehar

bidaiatzen ari nintzela, Angus Fraser antropologoaren *Ijitoak* liburuak eta Tony Gatlif dokumental zuzendariaren *Latcho Drom* pelikulak bultzatu ninduten Rajasthaneko basamortuetan barrena sartzera. Kalbeliya tribuko aitona eta bi biloba hauek eta familiako gainerako kideek astebete zeramaten kanpamentuan finkatuta. Komunikazio linguistikoa mugatua bazen ere, giro paregabearen pasa genuen gaua musika, dantza, sua, bi zigarro, edari etiliko eta Bang edarien inguruan.

Argazkilaritzak askotan eramaten nau esperientzia sinestezinetara, beste mundu surrealista batzuetara eramaten nau, beste errealitate batzuetako ateetako giltza aurkitu dut.

Ia argazki guztiak horizontalean atera badituz ere, Caravaggioren margolan batera hurbiltzen nauen lan bertikal hau da orain arte argiaren bidez marraztutako lanik gogokoena. ■■■

**Datu teknikoak:** *Fujifilm XT-1; 23mm; f 1.4; ISO: 3.200; 1/15 esposizioa.*

*www.david-julia.com*







MARIA ALBERDI, ZUMAIAKO EMAKUME ETXEAREN IZENEAN

# Emakumeon etxea

**Z**umaiarrok baditugu harro sentiarazi gaitzaketen askotariko arrazoiak, eta horien artean dago lerro hauetan kontatzen gatozkizuen horietariko bat: labetik atera berri dugu abenduko plenoan aurkeztu genuen Zumaiako Emakumeon etxea egiteko eskaera jasotzen duen dokumentua.

Aspaldikoak eta askotarikoak dira feminismoaren aldarrikapenatariko bat den Emakumeen etxea sortzeko egindako ahaleginak. Herriko emakumeek, Berdintasun Foroaren bidez, topagune espazio bat izateko nahia eta beharra transmititu izan dute, une eta modu desberdinetan. Adibidez: Zumaiako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Planean, Udalak aurreikusita eta jasota du 2017an

Emakumeen Txokoa sortzeko konpromisoa. Berdintasun Planean ez ezik, 2015-2025 Plan Estrategikoa txostenean ere adierazi da Emakumeen Txokoa eratzeko borondatea.

“Berdintasun politikak indartu” izeneko atalean 10.2. puntuak dio: “emakumeen ahalduntzea bultzatzeko espazioak sortzea”. Horrez gain, Plan Estrategikoko 10.9. puntuan, Berdintasun Planean adostutakoari jarraipena ematea itundu da; bertan, arestian adierazi den bez, emakumeen txokoaren sorrera 2017an xedatu zen.

Horrenbestez, eta horiek guztiak kontuan hartuz, Zumaiako Emakumeon Etxea zer den, zertarako den eta nolakoa izan beharko duen zehazteko prozesu irekiari ekin genion. Izan ere, argi eta garbi daukaguna da herritik datorren

eta herriarena den eskaera bat dela etxea. Zumaian ere, emakumeok bizi eta sufritu egiten baitugu desabantailaz beteriko egoera erreal pila. Eta halakoxea izan zen saioen bidea ere; anitza eta hunkigarria. Horrelaxe, hitzez hitz, jaso dugu etxearen definizioa dokumentuan: “Zumaiako Emakumeon etxeak espazio dinamiko eta irekia izan behar du, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzea eta emakumeon ahalduntzea bultzatzea helburu dituen. Herriko emakume norbanakoentzako eta emakume elkarteentzako topagunea izango da (anitza, plurala eta askatasunekoak): ikasteko, prestakuntza eta informazioa jasotzeko; jabeakuntza sareak sortzeko; emakumeen ahalduntzea,

HAUXE BAI JENEROA!





## ERREMATEA



SARA IBARGUREN

## Erronka berriak

**N**ork ez dizkio urte berriarekin batera erronka berriak proposatu bere buruari? Gabonen ondoren kirola maizago saiatzea, esaterako, erronka ohikoak izaten dira. Bideragarriak ikusten ditugu, gainera. Aurretiaz “Urte berria, bizimodu berria” izeneko zerrendan zeuden zereginak betetzeko buru-belarri jardungo genuela zin egin genion geure buruari, eta urtea igarotakoan, konturatzen gara gauzak ez direla hainbeste aldatu. “Aurten ere ez dut...” hitzekin hasten den esaldi horrek bukaera amaigabeak ditu zenbaitentzat. Beste batzuek ordea, guztiz aurkakoa pentsatuko dute, eta saiatuz, lehentxeago aipatutako zerrendan ilusioz eta gogo biziz iltzaturiko betebeharrak behar bezala beteko dituzte.

Bakoitzak ahal duen doinu eta neurrian abesten dio bizitzari.

Baina, badira, halaber, erronkak kapritxo hutsagatik baino, egunero bizirauteko ezartzen dituzten pertsonak ere. Edozein motatako indarkeriaren eta menpekotasun egoeraren aurrean irmoki erantzutea egokitu zaienak. Urte berria iritsi dela ere, agian, konturatu ez direnak... erronkei aurre egiten egun bakoitzeko, gutxienez, urte bat baino gehiago igaro dela iruditzen zaielako. ■

partaidetza eta presentzia sustatzeko; eztabaida eta gogoeta pizteko ikuspegi feministatik; indarkeria matxistatik gabeko elkarbizitza sustatzeko, era askotako aholkularitza: juridikoa, lan munduratzeko, erregulartasun administratiboa, sexuala...”.

Beste irizpide asko ere agertu ziren, aho batez partekatutakoak; esate baterako, bistan eta eskura dagoen etxea behar duela izan; askotariko espazio anitzez gain, une gogor eta berezietarako espazio babestuagoak ere behar dituela izan. Baita laguntza eta aholkularitza profesionala ere eta abar. Eta eztabaida eta hausnarketa bideratu zuten gaiak ere izan genituen, noski; izan ere, patriarkatuak emakumeak baztertzeaz gain, beste talde asko ere baztertzen

ditu, eta, nola ez, patriarkatuaren indarkeriaren ondorioak jasaten dituen talde orok behar du bere lekua aurkitu etxe honetan. Etxearen gestioa ere gai nagusietako bat izan da. Etxeak bizia eta herrikoa behar badu, gestioak ere halakoxea behar baitu. Hortaz, argi jaso dugun beste oinarri nagusia da etxeak behar duen elkarlan eta parte hartze zabala izan da.

Beraz, beste pausotxo bat eman berri dugu desiratzen dugun Zumaiarantz. Eta azken hitz hauek baliatu nahi ditugu zuen laguntza eta parte hartzea eskatzeko. Gu indartsu eta ilusioz baikaude, baina lortu ezinezko desioa izango baita zuok guztiok gabe. Hortaz, erne, laster gaituzue eta Zumaiako Emakumeon Etxerako bazkide bila!!! ■

## INDARKERIA MATXISTAK 2003TIK

...TU DIREN  
...ARRAK,  
...ENTUZ,  
...UTARRAK  
...DIRELA



**Goratu**  
antzerkiak eta musikaz  
**Zumaian**

**Zumalako Udala**

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA
<p><b>URTARRILAK 13, OGANDEA</b></p> <p>PINOTXO - GLU GLU 12:00 eta 16:30   Aita Mari</p> <p><b>URTARRILAK 25, OSTIRALA</b></p> <p>RITA - Txalo 22:00   Aita Mari</p>	<p><b>OTSAILAK 15, OSTIRALA</b></p> <p>HEZUR BELTZAK kontzertua 22:00   Aita Mari</p> <p><b>OTSAILAK 16, LARUNBATA</b></p> <p>GOAZEN (2 saio) 17:00 eta 19:00   Zumaiena</p> <p><b>OTSAILAK 22, OSTIRALA</b></p> <p>TENDRIAMOS QUE HABER EMPEZADO DE OTRA MANERA Javier Larrea 22:00   Aita Mari</p>	<p><b>MARTXOAK 4, ASTELEHENA</b></p> <p>MUSUA Pirribix, Porrotx eta Marimotots 15:00 eta 17:30   Zumaiena</p> <p><b>MARTXOAK 15, OSTIRALA</b></p> <p>TOMIRIS - ATX Teatroa 22:00   Oxford</p> <p><b>MARTXOAK 22, OSTIRALA</b></p> <p>KÄFFKA - Kamikaz Kolektiboa 11:30 (Eskolentzat)   Aita Mari 22:00 (Irekia)   Aita Mari</p>

**Urtarilean**

txartela erabili eta 25€ opari txartela irabazi dezakezu. BOTIKA, PARABOTIKA eta ESTETIKA ZENTROETAN erabiltzeko

**ZUMAIA ELKARTEA**  
Biziaren elkarrekin

**Z E**

**Zumalako Udala**

**GERTU**  
GURE ERREKONSTRUKTIO ERAGILEA

**CAJA RURAL**



# Pasioa ofizio bihurtuta

Leioara medikuntza ikasketak egitera joan zenetik, ez da bueltatu Zumaiara bizitzera Mari Mar Cortes. Bartzelonan eta Bostonen lan egin du, eta duela 10 urtetik New Yorken bizi da. Garun errehabilitazioan da aditua, eta aitortu du bere lanbidea asko maite duela. Nahiz eta Atlantikoaren beste aldean bizi eta elkarriketa telefonoz egin, galderei erantzuteko moduan nabari zaio lanarekiko duen ardura eta pasioa.

Testua: **Izaskun Urbieto Esnal.**

Argazkiak: **Mari Mar Cortes.**

**A**skok ETB1eko *Euskalonski* saioan ezagutu genuen Mari Mar Cortes mediku zumaiarra. “Oso ongi pasatu nuen grabaketa horiek egiten. Zumaiara askotan joaten naiz, baina jendeak ez daki zertan egiten dudana lan. Badakite medikua naizela, baina askoz gehiago ez. Orduan, telebistako momentu hori aprobetxatu nuen nire lana zein zen azaltzeko”, adierazi du.

Ikasketez medikua da Mari Mar, baina, gaur egun, zientzialaritzat du bere burua. Garun errehabilitazioan da aditua eta New Yorkeko Mount Sinai ospitalean egiten du lan. “12 urte nituenean erabaki nuen mediku izan nahi nuela. Hori ikasiz gero, pentsatu nuen aitona-amona guztiak sendatzeko aukera izango nuela. Bultzada bat bezalakoa izan zen, eta orduan jakin nuen hori besterik ez nuela ikasi nahi”, kontatu du.

Leioan hasitako ikasketak Donostian amaitu zituen, eta MIRA Iruñean egin zuen. Garunarekin zerikusia duen espezialitate bat aukeratu nahi zuen, eta, hala, errehabilitazioa hartu zuen. “Diziplina anitzeko eremua da, eta horrek esan nahi du jende askorekin lan egiten duzula”, esan du. Gaur egun ikerketa arloan murgilduta dabil eta bere lan lerroa da garuneko gaixotasunen bat dutenei bizitza hobea izan dezaten irtenbideak aurkitzea. “Beraien eboluzioari segimendua egiten diot, bai ospitalean, baita errehabilitazio prozesuan ere. Lanketa horietan aditu askok parte hartzen dugu: psikologoek, ingeniariak...”.

## **Bartzelonatik Amerikako Estatu Batuetara**

MIRA egin ondoren eta errehabilitazioko espezialitatea aukeratuta, Bartzelonako Bellvitge ospitalera joan zen erresidentzia egitera. “Oso gustura ari nintzen han lanean, baina konturatu nintzen pazienteek zituzten arazoek ez zutela sendabiderik”, aitortu du.







“Nire adineko mutil bat etorri zen behin. Itsasoan igerian ari zela olatu batek lepoa hautsi zion. Esploratu genuen eta lepotik behera mugitu ezinik geratu zela ondorioztatu genuen. Ospitale on batean ari nintzen lanean. Nola esango nion hogeita gutxi urteko bati ez zegoela soluziorik? Nire nagusiak ere diagnosis baieztatu egin zuen. Ezin nuen sinetsi, eta pentsatu nuen zerbaitegin behar nuela”, jarraitu du.

Hala, garun elastikotasunean aditua den Alvaro Pascual-Leone Harvardeko irakasleari idatzi zion. Mari Marrek ez zekien ongi zer esan nahi zuen kontzeptuak, baina gizon hura oso famatua eta jakintsua zenez, ezagutu nahi zuen. “Mina duzunean gorputzak edo garunak aldatzeko duen gaitasuna da. Hau da, garuneko zati bat kaltetua baldin badago, garuneko beste zati batzuk hartuko dute galdutakoaren funtzio hori. Esan genezake garuna berrantolatu egiten dela, eta hori errehabilitazioan bakarrik egin dezakegu. Berrantolaketa hori nola garatzen den ulertzen badugu, agian pertsonak berriz mugitu ahal izango dira, ibili, ikusi...”, kontatu du.

Pascual-Leone Bartzelonara joan zen, eta elkarrizketa izan zuten. “Argi nuen gai horren inguruan ikasi nahi nuela, eta Bostonera joateko gonbidapena egin zidan. Han amaitu nuen nire erresidentzia”, gaineratu du. Lau hilabetez egon zen Boston eta New York artean, eta amaitutakoan, Harvardetik eta New Yorketik lan eskaintzak izan zituen. Bigarrena aukeratu zuen. Hiru hilabeterako proiektu txiki bat egiteko gelditu zen, baina dagoeneko 10 urte daramatza. Hasieran Cornell unibertsitateko Burke institutuan hasi zen lanean, eta gaur egun Mount Sinai ospitalean dago. “Egia esan, oso leku prestigiotsuetan hasi nintzen lanean. Zaila da leku horietan sartzea, baina are zailagoa da mantentzea. Oso polita da egiten dudana, oso gustukoa dut eta maite dut nire lana”, adierazi du.

### **Garun estimulazioa**

Mediku zientzialaria da Mari Mar, eta, hain zuzen, esperientzia pilotuekin egin du lan. Ideia edo teknologia berriak pertsonengan probatuz, nolako efikazia edo funtzionamendua duten ikertzen aritzen da. “Nire kasuan, garun estimulazioko teknikak erabiltzen

Mari Mar Cortes David Putrino lankidearekin (erdian) eta Joseph Herrera nagusiarekin errehabilitazio gelan.

Kolaborazio lan bat du Buenos Airesen, eta azken bisitan Barilochera joan zen. Bidaiatzea asko atsegin du.



Reeve Foundation-ekin ere lankidetzat du Mari Marrek.

ditut, eta horiei esker, kaltetuta dagoena mugitzea lortu daiteke. Batez ere, lesio medularretan naiz aditua”, esan du. “Kontua da lesio medularra duten pertsonen arazoa ez dela bakarrik ezin mugitzea. Are gehiago, ezin dute ezer sentitu eta min handia dute. Paziente horiekin lan egiten dudanez, konturatu ginen garuneko parte bat estimulatzeko baldin bada, mina arindu egiten dela. Hor jarraitzen du, baina ez dute hainbeste sentitzen”, jarraitu du.

Prozesu horretan, bi mekanismo erabiltzen ditu, batez ere: robotak eta errealitate birtuala. Lehenengok garuna estimulatu dute. “Pertsona bati hogei minutuz estimulazioa eginez gero, hiru orduz ez du minik sentitzen. Astebetara ere iritsi daiteke, eta hori ikertzen ari gara orain”, kontatu du. Errealitate birtualari esker, berriz, pazienteek beraien besoak eta hankak mugitzen ikusten dituzte. “Garunari iruditzen zaio pertsonak benetako mugimendua duela, eta, orduan, mina joan egiten zaio. Errealitate birtuala egunero erabiltzen bada, hilabete batean mina asko arintzen da”, gaineratu du.

Ospitalean egiten duten ikerketa doakoa da. Hau da, entsegu teknikoetara edonor joan daiteke. Hori bai, pazienteek kriterio batzuk bete behar dituzte. “Honelako ikerketek protokolo oso itxiak dituzte. Horregatik, proba hauetara etorri nahi dutenek ezaugarri jakin batzuk izan behar dituzte. Hala ere, badago ordaindu eta estimulazio saioetara etortzen denik”. Jendea munduko edozein txokotatik joaten dela aitortu du Mari Marrek.

### **Damurik ez**

Ameriketako Estatu Batuetako medikuntza oso aurreratua dagoela esan ohi da, baita profesional eta ospitale onentsuenak han daudela ere. “Saiatzeko gara gure gaian aurreratuak egoten, baina lehia handia dago hemen, baita Europan ere”, nabarmendu du.

Horrek presiorik sortzen dion galdetutakoan, zalantza agertu da. “Bai eta ez. Ez dakit zer esan. Nire lanpostuan ideia onak izan behar ditut. Hau da, berritzailea eta kreatiboa izan. Horrez gain, erakunde publikoen eta fundazioen diru laguntzak jasotzeko txostenak, protokoloak, bekak eta beste hainbat gauza idatzi behar ditut. Horiek emandakotik garatzen ditugu askotan proiektuak. Eta, horretarako, oso lehiakorra izan eta curriculum ona eduki behar duzu. Horrek guztiak presioa sortzen dit, jakina. Baina pertsonekin egiten dut lan, eta hori oso gustukoa dut. Gainera, talde bikain baten alboan egiten dut lan, bidaiatu egiten dut konferentziak emateko eta nire ikerketak azaltzeko... Laburbilduz, oso polita da egiten dudana”.

Ospitaleko zentro bateko zuzendaria da orain, eta Harvarden ere garun estimulazioaren inguruko klaseak ematen ditu. Puntapuntako ikertzailea izateak, ordea, agian bidean gauza batzuei uko egin beharra ekarri dio. “Ez dut damurik. Txikitan erabaki nuen medikua izan nahi nuela pertsonen laguntzeko. Erresidentzia bukatu nuenean, berriz, zientzialaria izatea pentsatu nuen. Horrela, pazientei banaka lagundu beharrean, medikuntza aldatzeko gai izango nintzelako. Zientziari esker, badaukat medikuntza hobetzeko eta sendagaiak aurkitzeko aukera, eta hori izugarria da niretzat”, nabarmendu du.





Zuzendari izateak aukera eman dio ordutegi flexiblea eduki eta agenda berak antolatzeko. Horri esker, urtean hirutan edo Zumaiera itzultzen da. “Niretzat oso beharrezkoa da. Oso familiarra naiz. Hor ditut gurasoak eta 93 urteko amona ere bai. Zumaian nagoenean mendira joaten naiz aitarekin, soziedadera afaltzera lagunekin, Erribera kalean pintxoak jaten ibiltzen naiz... Lasai egoten naiz han, eta niretzat dena da hori”.

### **New York, New York!**

Etxeorratzen hiria energia handikoa dela kontatu du, eta oso pozik bizi dela bertan. “Zorte handia izan dut lagun oso onak aurkitu ditudalako. Oso hiri handia da eta jende pilo bat bizi da, baina, era berean, bakarrik sentiarazi zaitezke, eta hori oso zaila da eramaten”, aitortu du.

Herrialde askotako lagunak egin ditu, eta gaineratu du horrek mentalitatea zabaltzen duela. “Aberastasuna eta besteen errealitateak ezagutzeko aukera ematen dizu. Bizitza ederra zela pentsatuz igaro nuen haurtzarora eta nerabezaroa Zumaian, eta orain, hemen, etxegabeko asko ikusten ditut, adibidez”, kontatu du.

Artistak, aktoreak, bitxigileak, medikuak... denetariko lagun kuadrilla egin du New Yorken, eta, besteak beste, korrika eta yoga egitea ditu gustuko. “Hiri honetako eskaintza kulturala oso zabala da, eta gauza asko egin daitezke aisialdian. Hori asko gustatzen zait. Hala ere, egia da dirua behar dela hainbat ekintza egiteko”.

Etzeko festak atsegin ditu, eta askotan egiten ditu afariak bere apartamentuan. “Zerbait erraza prestatzen dugu afaltzeko eta gero beti amaitzen dugu kantatzen, dantzan, norbait gitarra jotzen...”, azaldu du.

Momentu honetan ez du ikusten bere burua New York ez den beste leku batean. Hala ere, uste du iritsiko dela nahikoa dela esango duen unea . “Baina hemen aurkitu ditudan pertsonak eta lan aukerak ez daude beste tokietan”, aitortu du. ■■■

Lagun batekin Times Square plazan. New Yorken lagun on asko aurkitu dituela esan du.

Kirol zalea da Mari Mar. Besteak beste yoga egiten du.

**"SAIATZEN GARA GURE GAIAN AURRERATUAK EGOTEN, BAINA LEHIA HANDIA DAGO HEMEN, BAITA EUROPAN ERE"**

**"MEDIKUNTZA HOBETZEKO ETA SENDAGAIK AURKITZEKO AUKERA DUT. IZUGARRIA DA"**

# Musikaren erritmoak marrazten

Entzumen arazoak zituela eta, haurra zenean, begietatik “asko jan” zuela dio Imanol Sesmak. Asko marraztu izan du ordutik. Gerora, 18 urte zituela, kirola alde batera utzi eta musika mundura gerturatzeko hasi zen. Orduan egin zituen lehen kartelak.

Testua: **Maria Maya Manterola.**

Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea.**

**M**usika eta marrazkigintza beti izan ditu afizio Sesmak. Denbora kudeatzen asmatzean dago gakoa sortzailearentzat. Haren hitzetan, kirola utzi eta denbora askoz gehiago izan zuen musikari emateko. Bere kabuz hasi zen diseinua ikasten, eta, “ia inkontzienteki”, serigrafia ikastaro batean eman zuen izena Donostian. Astean behin joaten zen, eta ordura arte musikan eta marrazkigintzan aritzen bazen ere, tartean falta zuen “pieza” topatu zuen ikastaro haren bitartez.


Sortzaileek “inspiraziorako aitzakiak” behar dituztela uste du Sesmak. Sofa musika taldeko partaide izan denez, sormenari bide emateko baliatu izan du musikaren esparrua. Sofaren diskoetako azalak egiteko, esaterako, taldekideen artean zehaztu zituzten ideia. Elementu ugari uztartu ditu Sofa taldearentzat egindako diseinuetan, besteak beste, zoramena, koloreak, animaliak...

Duela gutxi utzi du zumaiarrak Sofa, taldearen etorkizuneko asmoei erantzuteko denbora faltagatik: “Ez nuen oztopo izan nahi, eta ni neu alden du naiz. Lagun onak izaten jarraitzen dugu, eta denbora gehiago izango dut orain haien entseguetara joan eta kontzertuez gozatzeko ere”.

Maiatzean Donostiako Dabadaba aretora gonbidatu zituzten, jotzekoa zen talde batek azken orduan huts egin zuelako. Ekainean eta uztailean ez zuten jo, oporregatik. Azaroaren 16an elkartu ziren berriz, Torreberri gaztetxean agur kontzertua emateko. “Ilusio handia” egiten zion zumaiarrari Sofarekin izandako ibilbidea







horrela amaitzeak. *Souvenir* gisa kontzerturako egindako kartelak ere banatu zituen. “Gustura egin nuen lo. Gau horrekin beti gogoratuko naizela pentsatu nuen”.

Diseinatzaile gisa, baina, eskakizunak ere jaso izan ditu. Jendea ideia jakin batekin joan izan zaion arren, uste du ideala dela norbere sormenari bide ematea. Sesmaren hitzetan, batzuetan sortzaileak aitzakia bat behar du diseinua nonbaitetik abiatzeko. Batzuk ideia garbiekin joaten zaizkio, beste batzuek diseinua eraman eta hori serigrafiazteko eskatzen

diote... Talde batek eskaeraren bat egin izan dionean ere ez du ezezkorik eman, eta musikarekin zerikusirik ez daukaten gauzak ere egin izan ditu.

Zumaian diseinu batzuk egin ditu dagoeneko. Voltaiarentzat diskoetako azalak, kartelak, Toilet Warriors-entzat ere egin izan du zerbait, Broterentzako serigrafiak, Sexplotionentzat... Madeleine eta Anestesia taldeei eskaini dizkie azken lanak. Nolanahi ere, edozein proiekturi atea zabalik utzi dizkio. “Ez diot orain arte ezeri ezetzik esan”, aitortu du.

Egin dituen diseinuen artean, Dardara Fest jaialdikoia da deigarriena. Amaia plaza osatzen da urtero musikarien elkarteak antolatutako festa. Leku harekin dituen oroitzapenak baliatu zituen Sesmak diseinua sortzeko orduan: “Amaia plaza egin izan dugun gauza bat da xibarekin jolastea”. Garrantzizkotzat jotzen du estetika musikaren alorrean, baina betiko ereduak alboratzen saiatzen da: “Kontzertu baten kartelak ez du zertan gitarra batekin eta bonbo batekin joan behar”. Punk kontzertu baterako, esaterako, ez luke burezurrez eta odolez beteriko diseinurik egingo.

Burura etorri zaion lehenengo gauza izaten du abiapuntu maiz Sesmak. Hala ere, ez dio prozesu jakin bati jarraitzen. “Askotan buelta asko ematen dizkiot, baina paperaren aurrean jarrita, beste zerbait ateratzen zait. Gauza bizi eta mugikor bat da sortze prozesua”, dio. Gauez ere egin izan du lan, presazko diseinuak egiten, eta goizean esnatzean kartela begiratu eta pentsatu izan du:

# BIYONA

BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

Santiago auzoa, 12 - ZUMAIA  
943-14 34 43  
[www.biyona.net](http://www.biyona.net)

## SUKALDEAK

Bainugelak

ETXEKO ALTZARIAK

Papel pintatuak

LEIHOAK

Keramika

GREMIOEN KOORDINAZIOA

“Hau zuk egin al duzu? Erotu egin al zara?”.

Eskuz marraztea gustatzen zaio, ordenagailuz lortu ezin daitezkeen “ukituak” lortzeko. Haren hitzetan, eskuzko marrazkiek badute zerbait berezia. Diseinu horiek ordenagailura pasa eta bertan manipulatu dituzte ondoren. Dardararen kartelaren kasuan, ordenagailuz egin zuen guztia. Eskuz egiteak duen desabantaila detaileetan galtzen duen denbora da, bere ustez.

“Kajoiari gordetako” lanek hautsa hartu aurretik, bere sormena zabaltzeari ekin dio orain. Ideia asko izan ditu buruan orain arte, baina denborak mugatu izan du. Orain, taldea ere utzita, denbora gehiago izango marrazkigintzarako.

Bere proiektu propioei helduko die datozen hilabeteetan. “Ideia batzuk badituzte, eta martxan jarri nahi dut”. Sofaren *merchandising stock*a ere amaitu zen, eta horrekin jarriko da. Madeleine taldearentzat serigrafiatzen ere ari da. Inguruko opariak egiteko ere baliatu du proiektua: “Azkena, Gailurra Xtremaren finala bota behar zutenean, bi egun lehenago Larraren kuadrillakoak etorri zitzaizkidan txapel bat oparitutako ziotela esanaz”. Txapela serigrafiatu zuen: “Probak egin nituen, eta atera zen. Gauza ezberdinak probatzea gustatzen zait”.

Gatza Factory izena jarri dio serigrafia proiektuari, “bizitzak gatza” behar duela uste baitu Sismak. Ez zuen proiektua bere izenean sortu nahi: “Zumaian talentua sobran dago, eta norbait proiektura gehituko balitz, izen berarekin jarraitzeko aukera izango genuke”. ■■■



Imanol Sismak Parolbidean duen lokalean egiten ditu bere lanak. .

**"KONTZERTU BATEN  
KARTELAK EZ DU  
ZERTAN GITARRA  
BATEKIN ETA BONBO  
BATEKIN JOAN BEHAR"**

# Puzlea osatzen

Maialen Del Pilar, ekitaldi baten atzean dagoena

Milaka detaile txikiren batura da ekitaldi bat. Pieza guztiek bat etorri behar dute: espazioa, dekorazioa, arreta, soinua, gidoia, denbora... Puzzle hori osatzen aritzen da Maialen Del Pilar (Zumaia, 1987). Ekitaldiak antolatzen jarduten du eta *Baleikeri* kontatu dizkio lan arlo horren xehetasunak.

Testua: **Maialen Odriozola**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

**H**ilabeteetako ezkutuko lana izan ohi da ekitaldi baten atzean dagoena. Bezeroaren beharrianak ezagutu, aurrekontua adostu, kronograma planteatu, ideia landu, gidoia zehaztu, dekorazioa prestatu, materialak aukeratu, hornitzaileak bilatu... Atzera kontaketa moduko bat da, eta estresagarria ere izan daiteke momentu batzuetan... Baina eguna iritsi eta ezkutuko lana errealitate bihurtzen denean, oso momentu polita izaten da hori. Jendearen aurpegietan ikusten duzunean egin duzun hori gustatu zaiela... Une horretan sentitzen duzun poza handia da”.

Pasioz bizi du Maialen Del Pilarrek bere lana. Publizitatea eta Harreman Publikoak ikasten ari zenean, ez zuen bere burua mundu horretako lan askotan ikusten. “Ekitaldien antolaketa” irakasgaia egokitu zitzaion arte, orduan bere izaerarekin eta gustuekin bete-betean bat zetorren lan arloa deskubritu zuen. Ondoren, esparru horretan espezializatu zen Bartzelonan egin zuen master bati esker.

“Amak josi egiten du eta nik txikitatik esku lanak egiten ordu asko pasatu ditut. Ekitaldien antolaketak aukera ematen dit ume nintzenetik gustatu zaidan sormen hori garatzeko. Izan ere,

pertsona sortzailea bazara, oso eremu dibertigarria da ekitaldiena. Nik, behintzat, nire lekua hor aurkitu dut.” Hala, bere lanbidean, praktikan, sormen hori eremu guztietan erabili behar duela dio: bezeroen eskakizunei erantzuteko, aurrekontuaren barruan errenditzeko, prozesuan sortzen diren arazoei aurre egiteko, sorpresa elementuak eskaintzeko, etab.

Sormena ardatz, bide oparoa egiten ari da Del Pilar: Donostiako Zinemaldian ibili da zortzi urtez lanean, *wedding planner* (ezkontza antolatzaile) gisa ere aritu da hainbat ezkontza antolatzen... Gaur egun, goizetan, moda enpresa baten estrategia digitala garatzen du. Arratsaldeak, berriz, Maio proiektuari eskaintzen dizkio. Maio, Maite Roso zumaiarrekin batera sortu duen estudio kreatiboa da.

## Maio, Maite Rosorekin daukan proiektua

Pasa den urrian sortu zuten Maio estudioa Maialen Del Pilar eta Maite Roso zumaiarrek. Komunikazioa, esperientziak eta sormena dira beraien proiektuen lehengaiak. Ezaugarri horiekin, berriz, izaera ezberdineko lanak eramaten dituzte aurrera; enpresa baten urteurrenaren ospakizuna izan daiteke,





*irrimara*



supermerkatu kate handi baten inaugurazioa, vending marka baten ekitaldiak, dantza ikuskizun baten estreinaldia, turismo bulego baten barne dekorazioaren diseinua, etab.

“Niri prozesua bera gustatzen zait asko; hau da, ideia pentsatu eta aurrera eramateko erronka hori, materialak aukeratzea, soluzioak bilatzea... Gainera, sarritan, xehetasun guztiez gu geu arduratzen gara. Guztiez esaten dugunean, gainera, horixe esan nahi dugu, guztiez: oraintxe gazta mozten ari gara, gero ordenagailuan eserita egongo gara, argazkiak ere ateratzen ditugu...”. Hain zuzen ere, #sobremesa egitasmoa bereziki gogoan dute, prozesu osoa bien artean eraman zutelako.

Orain dela 9 urte sortu zen New Yorkeko Brooklyn auzoan #sobremesa ekimena Karen Morechai argazkilari gastronomikoaren eskutik. Afari bat antolatu zuen bere estudioan, afari horretako irudiak sarera igo zituen, eta lortutako arrakasta ikaragarria izan zen. Helburua, berriz, hauxe zen: jendea mahai baten bueltan batzea, elkarren artean harremanetan jarrita momentu atsegin bat pasatzeko. Horretarako bertako eta garaiko elikagaiak sustatzen zituzten. Afariaren arrakasta ikusita, mundu mailako deialdi bat egitea pentsatu zuen Morechaik, eta 34 hiritarazabaldutako ekimena. Hala, herrialde ezberdinetan egitasmo hori aurrera eramateko gai izango lirakeen pertsonak ezagutzeko prozesua abiatu zuen. Maialen Del Pilarrek eta Maite Rosok aurkeztu zuten proposamenak irabazi zuen Donostian antolatutako #sobremesa ekimenaren deialdia.

Buru-belarri sartu ziren Maioko kideak proiektuan: babesleak bilatu, lekua aukeratu, gonbidapenak sortu, afariaren egitura eta menua pentsatu, dekorazioa prestatu... Sukaldean aritzeaz eta zerbitzatzeaz ere beraiek biak

arduratu ziren. Eta, noski, xehetasun guztiak ondo lotzea ere euren erantzukizuna izan zen.

### Planifikazioa eta moldagarritasuna, gakoak

Hain zuzen ere, planifikazioa dela diote ekitaldien antolaketan kontuan izan beharreko gakoetako bat. Baina, horrekin batera, garrantzitsutzat jotzen dute, baita ere, moldagarria izatea ezustekoei azkar eta ondo erantzuteko. “Oso alerta egon behar duzu detailek ez pasatzeko. Baina, horrekin batera, zuzenekoan ere moldaeraza izan behar duzu. Izan ere, gauza guztiak ondo kalkulatu eduki arren, arazoren bat sortzen bada, gai izan behar duzu ezusteko hori berehala eta ondo bideratzeko”.

Hala, aitortzen dute beraien lanbidea batzuetan estresagarria izan daitekeela. Aldizka, zoramen gisa ere deskribatzen dute. Baina, bikote ona

## Maialen Del Pilar Meabe

- **Adina:** 31 urte.
- **Ikasketak:** Publizitatea eta Harreman Publikoak ikasi nuen. Ekitaldien antolaketaren inguruan master bat egin nuen gero.
- **Lanbidea:** Komunikazioarekin eta sormenarekin lotutako proiektuak eramaten ditut aurrera. Zaila egiten zait ofizio moduan hitz bakar batekin definitzea.
- **Ekitaldiak antolatzen ez banu egingo lan...** lore denda bat zabalduko nuke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** zinera joatea edo eskulanak egitea. Horrez gain, sormenarekin lotura duten ikastaro askotan ematen dut izena.





egiten dutela diote eta hori mesedegarria dela beraien jardunean: “Lan saioak luzeak izan ohi dira, zenbaitetan, goizean hasi eta gauera arte. Nekatuta amaitzen dugu, baina, beste alde batetik, oso ondo pasatzen dugu”.

Aurrera begira ere Maio proiektuan aritzeko asmoa dute elkarrekin. Momentuz, gainera, lanik ez zaie falta. “Proiektu asko sartu zaizkigu hasi ginenetik. Egia esateko, ez genuen espero hainbeste lan izatea. Horrek, beste alde batetik, gure enpresaren gauzak atzeratzen joatea eragin

du, adibidez, orain ari gara gure web orria edota logotipoa lantzen”. Urte amaierarekin batera, proiektu batzuk bukatzen ari direnez, lan propio horiek egiteko baliatu nahi dute momentua. Izan ere, beraien egitasmoak ahoz azaldu beharrean, modu bisualean aurkezten dituztenean hobeto ulertzen direla diote. Gaur gaurkoz @wearemaio Instagram kontuan ikusi daitezke beraien lanak. Begi bistan dagoena da Maio etorkizuneko apustua dela, bai Del Pilarrentzat, bai Rosorentzat. ■■■

## ZATOZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!

Webgunea: [talasoterapiazelai.com](http://talasoterapiazelai.com)  
 Tel. 943 865 100  
 Talasoaren ordutegia: Egunero irekita 9:30etik 20:30era  
 Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean

Talasoterapia  
**Zelai**  
 ZUMAI A



# BAZKIDE KLUBEKO ZOZKETAK



Itzurun taberna: Iker Zulaika Loiola



Otezuri: Jabi Gonzalez Toston (argazkian) eta Araitz Zubimendi Santamaria



Athleticeko kamiseta: Eneritz Laskibar Lete (bere bikotekideak jaso zuen kamiseta)



Ardantzabide altzariak: Ainhoa Mendizabal

## ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiak jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

## DESKONTUAK

**ERTZ INFORMATIKA:** %2ko deskontua.

**ARRUTI MODA:** %5eko deskontua.

**IRUITZ ILEAPAINDEGIA:** Analisi kapilarra doan.

**UKENDU PARAFARMAZIA:** %5eko deskontua.

**EKIN ELEKTRIZITATEA:** %10eko deskontua lanparetan.

**EGOKI BITXIDENDA:** %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

**IRIONDO OPTIKA:** Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

**ENDAÑETA ETXETRESNAK:** %5eko deskontua.

**GOLDEN GATE AKADEMIA:** %20ko matrikulazioan.

**A3:** %5eko deskontua.

**TALAIA:** ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

**ARTAZA KANPINA URBASA:** %10eko deskontua.

**AIZPURUA LIBURUDENDA:** Liburuak %5 merkeago.

**OSKARBI KIROLDENDA:** %5eko deskontua.

**KALARI JATETXEA:** Igandeko afaria %10 merkeago.

**TRAPAIA:** Igandeko bazkariarekin kafea doan.

**KUKITXA:** Erosketak etxera doan.

**PRIMAVERA PIZZERIA:** Pizzak etxera doan.



## ZOZKETAK

**ONURA:** Fisioterapiako lau bono.

**ONGIZAN:** Fisioterapiako lau bono.

**GAINDITUZ:** Lau bono.

**OTEZURI KAFETEGIA:** Bi tarta San Markos.

**MANDALA PAPERTEGIA:** Bost euroko bost bale.

**ITZURUN TABERNA:** Lau lagunentzako afaria hileroko.

**BQD BIDAIAK:** Lau bono.

**ANTZERKIRAKO SARRERAK:** Emanaldi bakoitzeko hiru lagunentzako bina sarrera.

**SANAGUSTIN KULTURGUNEA:** Kontzertuetarako sarrerak.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

### Bazkide egiteko bideak:

Webgunean: [baleike.eus/bazkidekluba](http://baleike.eus/bazkidekluba)


E-emailez: [administrazioa@baleike.eus](mailto:administrazioa@baleike.eus)

Telefonoz: 943-86 15 45



## Kiroldegian

Iburak ibura, zati hauetatik batzuk ez dagozkio kiroldegiko irudiani. Zeintzuk dira?



Hartz iburako bi panpin daude bertan. Ikusten al dituzu? Eta pingüinoa?

## Kalabaza Festa

Aurkitu parerik ez duen kalabaza.





## SUDOKU

Ipini sudoku bakoitzeko letrak dagokien tokian. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta lau laukiko area bakoitzeko.

B			I
L		B	
	A		



ZAPI  
ala AZPI?

A	P		
		A	
			I
		Z	

**ZOPA** ala **POZA**?

A			Z
		P	
	Z		
O			

**BLAI**  
ala **BILA**?

**SUMENDIA**

Ai ama! Sumendia lehertu da! Zein bide jarraitzen du labak, tximiniatik gora ateratzeko?

Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)

**PUBLIZITATEA**

**gARA**  
manufacture

*1989tik sukalde altzarietan lanean*

HITZORDUA ESKATU ETA LANTEGIRA HURBILDU:  
Olabidea aldea 1 (Errotaberi Industrialea)  
20.800, ZARAUZ 943 13 31 09

BERTAKO DISEINU ETA EKOIZPENA



www.garay.eus

**Braky's**  
Okindegia Kafetegia

Izaga kalea, 2  
20750 Zumala (Gipuzkoa)  
Tl.: 943.57 07 79  
Móvil: 649 96 72 89



**EDU**  
ZUMAIKO  
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6  
20750 Zumaiá, Gipuzkoa  
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16



**EGOKI**

Eroju  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943-86 17 87



**ekin**  
INFORMATIKA, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943-14 30 97  
ekin@ekinsi.com www.ekinsi.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet

**mara** **MÁSMÓV.L**

**ERNTO  
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45



**ERTZ INFORMATIKA**

Portatilen mugikorren  
eta tableten konponkerak

Behoko plaza tel./faxa: 943-14 33 95



**Galdona**  
burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46  
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30



**Garaa**

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola  
tel. 943-86 21 81  
Txomin Agirre, s/n  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



**GLENCOE**  
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 behea  
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



**goiko  
bodegoia**

Erribera, 9 - 943-86 13 91



Ikastegi homologatua

**Golden Gate**  
institute  
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea  
tel./faxa 943-86 50 20  
info@goldengateinstitute.com



**Gure-Txokoa**  
aberna

Upela plaza, 4  
20750 Zumala  
Tel.: 943-86 09 70



**Harvest**  
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera  
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34



**DOIA**

Julio Beobide, 2  
943-57 49 86



**ilarzi**

Alai auzategia, 2  
Tel. 943-24 50 20



# Erorketak prebenitzeko aholkuak 2



**ROSA AZKUE**

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

## Norberaren zainketa

Arretaz ibili, oinak zaintzeak eta oinetako egokiak erabiltzeak asko lagunduko dizu egonkortasunari eta orekari eusten, oinez ibiltzeko.

- Oinetakoak erosterakoan, kontuan hartu zapata orkoia eta oinaren forma.
- Erabili oinetako trinkoak, oinari ondo eusten diotenak, barrualde sendoarekin eta zola irristagaitz malguekin, zoluaren kontrako talka irensteko modukoak. Lokarriak badira, ez dezatela estutu.
- Saiatu ez erabiltzen takoi alturik eta zapata mutur esturik.
- Jantzi oinetako egokiak oinez ibiltzera joateko.
- Etxean ez ibili galtzerdi hutsetan edo oinutsik.
- Ez erabili oinetako atze iririk edo orpo sendogarririk ez duenik.

Kontu egin botikei.

Gaixotasun kronikoek, ohiko gaixotasun batzuek (gripeak, katarroak...), nekeak, ahul sentitzeak edo egun batzuetan ohean egoteak areagotzen dute arriskua.

- Ondo ezagutu zure tratamendua: zertarako den botika bakoitza, zein den beharrezko dosia eta noiz hartu behar den.
- Botika batzuek zorabioak eta logura eragin ditzakete, eta orekari erasan.

Sintoma hauek baldin badituzu, medikuarengana joan zaitez.

- Botika batzuekin nahasiz gero, alkoholak ere erasan diezaioke orekari.

Seguru ibiltzeko, ezinbestekoa da ikusmen eta entzumen ona edukitzea:

- Erabili betaurreko egokiak eta aldatu pilak audifonoari sarri-sarri.

## Nola eseri eta altxa aukit

- Esertzeko, jar zaitez aukiarik bizkar emanda, zangoen atzealdea aukiarik kontra duzula, jaitsi kokotsa, tolestu belaunak, eta eskuak beso euskarrietan (aukiaren aldamenetan) dituzula, jaitsi mantso-mantso aukirik ertzeraino; gero, jarri gorputza eserlekuan, aukirik bizkarraren kontra-kontra.

- Altxatzeko, eraman gorputza aukirik ertzera, kokotsa jaitzita duzula eta pelbisa okertuta edukita. Zoruan oinak tinko dituzula eta eskuak beso euskarrietan (edo aukiarik aldamenetan), luzatu belaunak eta altxa.

## Nola etzan eta altxatu ohetik

- Ertzateko, eser zaitez ohe ertzean: jarri bi eskuak ohe gainean, burkoari begira, eta besoekin lagunduta, jaitsi burua eta gorputza mantso-mantso, zangoak altxatuz aldi berean, alde batera etzanda geratzen zaren arte.
- Ohetik egokirik altxatzeko, jar zaitez aldamenetara ohearen ertz batean; gero, belaunak tolestuta, jaitsi zangoak eta, aldi berean, altxa gorputza

besoekin lagunduta, eserita geratu arte. Ondoren, jar zaitez zutik.

## Nola altxatu lurretik, eroriz gero

Eskatu laguntza ingurukoei; inor ez badago, deitu 112 larrialdi zenbakira edo erabili telealarmako gailua, baldin badaukazu.

1. Lasai egon eta saiatu gorputza biratzen ahuspez jarri arte.
2. Gerturatu besoa eta belauna elkarrengana eta bultza besoekin lau hankatan jarri arte, eta joan, lauoinka, gertuen dagoen elementu egonkor batera: aukirik, ohea...
3. Jarri bi eskuak aukiarik gainean, eta gero, altxa hanka bat (indartsuena). Indarrez eskas bazabiltza, hartu atsedean horrela.
4. Bultza egin aurreko hankarekin eta bi eskuekin batera, altxatu eta esertzeko, ahal bada. Hartu atsedean, mugitzen saiatu aurretik. Ez baduzu lehenengoan lortzen, saiatu berriro.
5. Erorikoaren ondoren, joan medikuarengana eta kontatu gertatutakoa. Saiatu zergatik gertatu ote den aztertzen, berriz gerta ez dadin.

## Jarduera fisikoak

Mugikortasuna, indarra, oreka eta malgutasuna hobetzen ditu; oinez ibiltzeak, dantza egiteak, baratze edo lorategiko lanetan aritzeak, tai-chi, yoga edo horrelako zerbait egiteak hobeto sentiaraziko zaitu, arinago, eta sasoi fisiko eta mental hobean. ■■■



PUBLIZITATEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

**Iriando optika**  
Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86  
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

**IRUDI OTS**  
Ikuskizun orotarako sailu eta argiztapen alokairua  
Hots eta irudigintza aretoa  
tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

**IRUITZ ILEAPAINDEGIA**  
San Telmo, 12  
Tel.: 943-86 07 60

**JUARISTI**  
jatetxea  
Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatua  
Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

**ORRAZTEGI ZUMAI A**  
943-86 20 83

**KABI** Patxia, Etxezarreta, 15  
943-11 74 27  
**TABERNA**

**Kathermik S.L.**  
**Arotzeria metalikoa**  
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,  
PVCzkoak eta mistoak  
Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

**kalari**  
Upela plaza, 8  
tel. 943-86 25 17

**kuttun**  
lentzeria  
erribera kalea tel. 943-11 79 36

**LABARRA TABERNA**  
ZUMAI A  
est. 2016  
Ondartxo plaza 5. Tel. 943-86 04 84

**malaia**

**Marina**  
Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46  
CROISSANTERIA  
pizzak  
hanburesak  
bokatak...

**MENDI - ONDO S.L.**  
**Elektrizitatea**  
Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69  
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

**"Muagi"**  
errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia  
RPS: 034/97 Alta Mari, 3. blokea. tel. 943-86 16 91

**NOIA S.L.**  
**TAILERRAK ETA KARROZERIAK**  
Etegabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)  
609 83 44 38 (Itziar-Deba)  
Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar industriagunea, C  
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91  
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com  
www.carroceriasnoia.com

# Banatu diren gurasoei gutuna

BIKOTE BANAKETA



**IZAR ARREGI**

GURASO ESKOLAKO PSIKOLOGOA

Banaketa batean haurrak izaten dira askotan gehien sufritzen dutenak, beraien ikuspegia ez delako aintzat hartzen. Behin, hitzaldi batean, gaian aditu den hezitzaile batek haurren ikuspuntua jasotzen duen gutun bat irakurri zigun. Oso ondo biltzen ditu gaiari buruz esan beharrekoak eta laburpen bat ekarri dizuet tarte honetara. Jarraian dauzkazue aukeratutako zenbait pasarte:

"Banatzen ari zaretela esateko modu asko daude. Mesedez, har ezazue behar den denbora adosten zein den modu, leku eta une egokiena niri jakinarazteko. Nire oroimenean gordeko dut bizitza osoan".

"Banatu egingo zaretela esateko momentuan, faborez, esaidazue ni non biziko naizen".

"Azaldu zer aldatuko den nire bizitzan eta zer ez".

"Esaidazue lehen bezala maitatuko nauzuela eta ez naizela ni banaketaren arrazoa".

"Ziurta iezadazue biok nire bizitzaren parte izaten jarraituko duzuela, eta, banatu aurretik, adostu batarekin eta bestearekin egingo ditudan egunak eta orduak".

"Ez dut izan nahi janari pentsioa entregatzeko ardurarik. Adostu zuen artean nola egingo duzuen".

"Ez naiz zuen arteko mezularia. Zuen artean esan beharrekoak zuek hitz egin. Elkarri idatzi edo telefonoz hitz egin ni aurrean ez nagoenean".

"Ez da nire ardura norik ordainduko duen zer eta noiz".

"Nire maitasuna ez da diruarekin erosten. Ez lehiatu zuen artean niri opari liluragarriak egiten".

"Ez da nire errua zuek ez bazarete elkarrekin ondo konpontzen; beraz, ez nazazue errudun sentiarazi".

"Ni ez naiz zuen bitartekaria".

"Ez behartu biotako baten alde egiten; ezin dut, eta errudun sentiaraziko nauzue bizitza osorako".

"Bata zein bestea besarkatzea eta musukatzea gustatzen zait. Ez nazazue errudun sentiarazi.

**ESAIDAZUE LEHEN  
BEZALA MAITATUKO  
NAUZUELA, EZ NAIZELA  
NI BANAKETAREN  
ARRAZOIA**

Nik ez dut erabaki zuengandik banatzea".

"Ez naiz zuretzat lanean ari den espioi bat. Ez galdetu bestearen bizitzari buruz".

"Nirekin ez zaudenean beti triste egoten zarela esateak min egiten dit".

"Bi etxebizitza eta bi familia izatea nahasgarria izan daiteke nire adinean. Zure laguntza beharko dut. Saiatu gauzak errazten, bizimodu berrira egokitu arte".

"Saia zaitzete bi etxeetan arau berberak izaten".

"Bi etxeetan izan behar dut nire espazioa, bietan behar ditut nire jostailuak, ipuinak, arropak...".

"Lagundu konfiantza berreskuratzen, orain bizitzak beldurra ematen dit eta".

"Ez nazazu behartu zure bikotekide berria onartzera. Denbora behar dut".

"Ez eskatu zure harreman berrien inguruan sekretua gordetzeko; oso deserosoa da niretzat".

"Eta, faborez, ez banatu seme-alabak zuen artean. Anai-arrebok elkarrekin egon nahi dugu, elkar behar dugu". ■■■

# Euskal kostaldeko beste Flyschak

Flyscha eta Zumaia, Zumaia eta flyscha. Azken urteetan bi hitz horiek sarri ikusi ditugu bata bestearekin lotuta. Bat-batean, gure flyscha oso ezaguna egin da eta ez zaizkio merituak falta.

Testua: **Asier Hilario.**

**X**X. mende hasieratik mundu guztiko ikertzaileak txundituta utzi dituen hondartza daukagu Zumaian. Zalantzarik gabe, lehen mailako arroak dauzkagu. Haiei esker, adibidez, dinosauroak duela 66 milioi urte nola desagertu ziren jakin ahal izan dugu. Baina flyschak osatzen duen liburu erraldoia ez da Geoparkearen mugetan amaitzen. Euskal Herriko kostaldeko labar gehienak flysch arrokez eginak daude. Gure liburu kuttunaren osagarriak dira. Non daude eta nolakoak dira Euskal Herriko beste flysch ezagunenak?

## **Itsas sedimentuz eta oskolez osaturiko liburu erraldoia**

Flysch geruzak Iberiar penintsula eta Europa kontinentea banatzen zituen itsaso sakonaren azpian sortu ziren duela 115 eta 45 milioi urte artean. 70 milioi urtetan zehar poliki-poliki itsas hondoa 8.000 metro sedimentu baino gehiago metatu ziren, baina flysch guztiak ez dira berdinak. Denbora luze horretan inguruan gertatu ziren lur mugimenduen ondorioz liburu erraldoi honek kapitulu eta orrialde desberdinak dauzka.

Zaharrenetik berrienera, hauek dira gure kostaldeko 4 flysch mota desberdinak. Erraz bereiziko dituzu.

### **1. Flysch beltza. Bizkaiko golkoaren irekiera (115– 100 milioi urte)**

Behe Kretazeoan Britainiatik gertu zegoen Iberiar penintsula poliki-poliki aldentzen hasi zen erlojuaren kontrako errotazio mugimendu bat eginez. Bizkaiko golkoaren sorrera izan zen hori. Mugimendu horrek itsas hondoa pitzatu eta puskatu egin zuen. Iberia eta Europatik zetozen ibaien sedimentuak itsas azpiko arroiletatik behera erortzen ziren arro sakonetara urez eta hondarrez osaturiko lubizien bidez. Korrante horiek itsas hondora iristen zirenean turbidita izeneko hondarrezko geruza bat metatzen zuten. Horrela sortu zen lutita beltzez eta hareharriz osaturiko formazio erraldoi hau.

**Mapa:** 6 zenbakia. Kolore berdea.





Geoparkeko flyschak ekialdera jarraitzen du. Getariako San Anton mendian turbidita ikusgarriak ikus daitezke. FRAN LLANO.

**Geoparkean:** Aitzuri eta Saturraran bitartean. Debako hondartza edo Saturraran dira azaleramendu esanguratsuenak.

**Euskal Herrian:** Bizkaiko kostaldearen zati handi bat. Ondarroa, Ogella, Matxitxako, Armintza edo Bilano dira azaleramendu ezagunenak.

## 2.- Flysch zuria. Itsaso sakon eta lasai batean (100–66 milioi urte)

Itsas hondoak behera egin zuen eta itsas azpiko erliebeak berdindu egin ziren. Arro sakon eta lasai horretan metatu zen Goi Kretazeoko flysch karetsu eta hareatsua. Itsas mailaren gorabeheren ondorioz kontinenteetako sedimentu hondartsu gehiago edo gutxiago ailegatzen zen itsaso hondora kareharri eta tupen artean tartekatzeke. Normalean, kolore grisa du.

**Mapa:** 8 eta 9 zenbakiak. Kolore marroiak.

**Geoparkean:** Aitzuri eta Algorri bitartean. Mendata, Sakoneta, Pikote eta Andikaraerrekan ikus daitezke adibiderik onenak.

**Euskal Herrian:** Iparraldean, Hendaia eta Biarritz bitartean, eta Bizkaian, Plentzia eta Barrika inguruan. Sopela, Barrika eta Donibane Lohizuneko labarrak dira ezagunenak.

## 3.- Flysch gorrixka. Dinosaurioen desagerpena jaso zuten geruzak (66–56 milioi urte)

Itsaso sakonean lasaitasuna zen nagusi. Paleozenoan apenas iristen ziren itsas hondo sakonera lubiziak sedimentuekin. Ondorioz, itsas hondotan lutitak eta itsas animalien oskolak metatzen ziren soilik,



Barrikako flysch zurian inoiz imajinatu ez dituzun tolesak ikusiko dituzu. FRAN LLANO.

# PUBLIZITATEA

**LIDEN**  
erakuntzak eta arkitekтура

676 87 56 52  
686 91 12 57  
oiden@oidenreformas.com

*Olden arkitekтура*  
676 87 56 52  
943-90 59 83  
kur@oidenreformas.com

**ZARAUTZ - ZUMAIA**  
www.oidenreformas.com

Fabrika  
Tokiak  
Eteberrak  
(Sukaveak, beirugak)  
Industriar martonmerkaduak  
Mota guztietako igiterotza lanak

Ebebitzen inspezio teknikoak (ITE)  
Zerifikatu energetikoak  
Fabrikan diseinua eta aholkularitza  
Ebebitzen berraketa  
Mota guztietako proiektuak

**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kuxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

**OSKARBI**  
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943-14 31 12  
oskarbi@euskalnet.net

**OSTOLAZA**

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.  
Joxe Mari Kortu Industriagunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

**Ostolaza**  
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25  
Julio Beobide Ibiltoia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

**Rosi** Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

**SOLOZABAL**  
autoeskolak

Etkezaretara, 19 • 943-861416  
zumaia@solozabalautoeskolak.com

**talasia**  
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70

**Tabaia**  
Taberna

Eribera kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943-86 19 73

**TTAKUN TABERNA**

Izurtari, 3  
tel. 943-86 52 89

**TXALAPARTA**  
OPARIAK

Angeles Somza, 2  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943-14 30 89  
faxa 943-43 00 37

**TXIMISTA**  
garagardotegia

Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondok (kadilloa)  
Saltxitxak, oilskoak...  
Garagardok-dukera

Ondartza plaza, 4 behean Tel. 943 573 905

**UKENDU**  
PARABOTIKA  
BELARDENDA  
Aitziber Etxeberria Garro  
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

**UZKUDUN**  
taberna

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943-11 63 97

**Xanti**  
ALTZARIAK

Amalako plaza, 13 tel. 943-86 23 85  
www.xantialtziariak.com

**yoana**  
ileapaindegia

Amala plaza,  
2 behea  
943-14 32 78

**Zalla**  
taberna


- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urtia Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

**ZUMAIA AUTOESKOLA**  
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com

BASADI, 12  
20750 ZUMAIA  
tel. 94386 10 18 / Fax: 94301 61 26





Euskal kostaldeko flyschak.

poliki-poliki kareharriz eta tupaz osaturiko txandaketa garbia sortuz. Geruza horiek garai hartako gertakari klimatiko eta biologiko nagusiak jaso zituzten, hala nola, K/T muga izenez ezagutzen den geruza beltz eta fina, duela 66 milioi urte dinosauroen desagertzea azaltzen diguna. Kontinenteetatik ailegatzen ziren lutita finek burdina gehiago zuten eta horren herdoiltzeak paisaia hain erraz identifika daitekeen kolore gorrixka sortzen du.

**Mapa:** 10 zenbakia. Kolore laranja.

**Geoparkean:** Algorri eta San Telmo inguruan.

**Euskal Herrian:** K/T muga daukaten geruza gorrixkak Euskal Herriko beste zenbait lekutan ere ikus daitezke: Sopela, Donostiako *Loretopea* (Kontxan, Miramar jauegiaren azpian), Hendaiaiko Bikiak edo Bidarteko hondartza, esate baterako.

### 3.- Flysch horia. Lubizi erraldoiak itsaso azpian (56–45 milioi urte)


Eozenoan, Iberiako plaka Europarekin talka egiten hasia zen eta Pirinioak ekialdetik altxatzen hasi ziren, astiro-astiro. Lehen erliebe horien higadurak sortutako higakin ugariak ibaiek kostaldera eramane zituzten eta indar tektonikoek eragindako mugimendu eta lurrikaren ondorioz, zuzenean itsas azpiko arro sakonera joan ziren lubizi erraldioen bitartez. Horregatik, tupa eta kareharri gutxi batzuk ikus badaitezke ere, lubizi horiek utzitako hareharriak (turbiditak) dira flysch honen protagonista nagusiak.

**Mapa:** 11 zenbakia. Kolore horia.

**Geoparkean:** Itzurun hondartzako Marianon punta.

**Euskal Herrian:** Bizkaian, Azkorri hondartzan eta Punta Galeako inguruan. Gipuzkoako kostaldean, Zumaiatik Hondarribiraino. Getaria, Donostiako Paseo Berria eta, bereziki, Ulia eta Jaizkibel dira flysch hareatsu honen adibide ikusgarrienak. ■■■■

**Informazio gehiago lortzeko, eskuratu Euskal kostaldeko mapa geologikoa turismo bulegoan edo Geoparkeko esteka honetan:** [https://geoparkea.eus/eu/geologia/euskal-kostaldeko-geologia-sinplifikatua?lang\\_code=eu](https://geoparkea.eus/eu/geologia/euskal-kostaldeko-geologia-sinplifikatua?lang_code=eu)



Armintzako badia txikian flysch beltzaren adibide ederrak ikusi daitezke. FRAN LLANO.



Hendaiaiko bikiak Algorriko puntako kolore gorrixka berdina dute. Horien atzean ezkututzen den Loiaiko badian K/T muga ere aurki daiteke.



Jaizkibel guztia itsas hondora iristen ziren lubizi erraldoiak utzitako harearri kapa lodiez (turbiditak) sortua dago. Edertasun liluragarria izateaz gain, mundu mailako erreferentzia ere bada Jaizkibeleko flyscha itsas sakoneko delta baten funtzionamendua ulertzeko.



# Libe Alkiza: eseri lasai gurekin mahaian



**TESTUA:** IMANOL AZKUE

*Diskrezioa izugarri estimatzen dut, eta gaurkoan pertsona eredugarri batekin nator.*

*Zarata eta keinu handirik gabe, behin ere nabarmendu gabe, baina beti hor, eginez eta eraginez, laguntzeko prest, zenbat samurtasun eta goxotasun eman digun Libek.*

Libe Alkiza Laskibar 1935ean jaio zen Herreran, Altzako auzoa artean. Hiru anai-arreba ziren, baina lau urterekin ama hil eta bi zaharrenak amonaren etxera joan ziren, Altzara; han lehengusu batzuekin hazi ziren, eta haiek ahizpatzat dauzka; anaia gazteena, berriz, beste etxe batera eraman zuten.

Altzatik, eskolara Herrerara joaten ziren egunero, eta ondo baino hobeto ikasi zuten zenbateko aldapa zegoen, goitik behera eta batez ere behetik gora, bazkaltzera eguerdian igotzean. Maestrak euskaldunak zituzten, baina dena erdaraz egiten zuten. Hamabi urterekin, aita hil eta kolpe handia hartu zuen, baina ikasketa ertainak amaitu eta kontabilitatea ikasi zuen Donostian; lan egiteko aukera ere sortu zitzaion, baina osaba-izebek ez zuten nahi izan: “Garai hartan ez zegoen onartuta emakumeek bulegoan lan egitea; orduan, jertseak egiten hasi ginen etxean, eta lan pila bat egin genuen”.

Harrezkero, makina bat aldiz egin behar izan zion aurre oztopo horri, emakume izategatik ezartzen zieten mugari.

Izenaz galdetu diot, beti eman didalako atentzioa, eta jaio zenean (Gerra Zibilaren atarian), ba omen ziren izen euskaldun gehiago inguruan: Garbiñe, Nekane, Edurne... Hain zuzen ere, gerraondorena ezagutu zuen, eta orduko errazionamenduko kartilla, bonoak, estraperloko irina... Baina goserik ez, eta hori, hamar lagun elkartuta mahaian...

Garai hartan Altxa herri handia zen hedaduran, eta inguruko auzo asko bereak zituen; herrigunea, ordea, txikia: plaza, frontoia, eliza eta baserriak. Jolasean pilotan ibiltzen ziren, neska eta mutil nahasian, eta beste ohiko jolas askotan, baina erdaraz: “Gero izaten ziren komeriak etxean... Ahizpen artean erdaraz, eta gure osaba oso euskaltzalea zen; beti gu zuzentzen, euskaraz egiteko kargu hartzen. Jakin bagenekien, ulertu dena, baina egin... Andonirekin hasitakoan eman nion buelta”. Igandero txistulariak joaten ziren Donostiatik, eta dantza asko egiten zuten, eta hazi ahala, pixkanaka, inguruko auzo eta herrietako festetara joaten hasi ziren, baina

heldutako dantzarik ez; izan ere, oso elizkoiak ziren eta hango aginduak zorrotz betetzen zituzten. “Orain konturatzen gara nola ibiltzen ginen; orduan, ordea, guretzat normala zen”.

Galdetu diot nola hartu zuen Zumaiarako bidea: “Gure ama zaraustarra zen, eta lehengusuak zituen laskibartarrak, Estazioan, eta Andoniren [senarraren] aita han jasotakoa zen”. Beste lotura batzuk ere izan zituen, ordea, Zumaiarekin: bi senide mojaxarretan egon ziren, eta bisitan etortzen zitzaizkien.

Andoni Ormazurirekin ezkondata (1960an), Jadarren jarri ziren bizitzen, eta Arrangoletako etxea amaitutakoan, etxez aldatu ziren, gaur arte. Orduko Zumaiaz galdetu diot: “Nik oso gustuko nuen. Hasieran gogorra egin zitzaidan, familiaren eta lagunaren faltan, baina segituan ohitu nintzen, eta oso gustura bizi izan naiz”. Bitxikeria bat ere badauka: “Hasieran ezin nuen ulertu hemengo euskara. Kostatu zitzaidan... Kontrakzioak, doinua... Baina ikasiko nuen, nonbait; gero Altzara joan eta galdetzen zidaten zer doinu hartu nuen...”, dio barrez.

Oso urte gutxian bost seme-alaba izan zituzten, eta



Antxon anaia gaztearekin, eskolan.

euskaraz eskolaratu nahi zituztelako, beste guraso batzuekin Ikastolaren sorreran aritu ziren. Beharrak asko eta handiak ziren, eta andereño baten baja betetzeko, haren ordezkapena egiten hasi zen; gero, urtebetez aritzeko konpromisoa hartu zuen, baina epealdi hura luzatu egin zen: “Garai hartan dena borborka zegoen... Ikastola asko sortu ziren, eta asko titulurik gabe genbiltzan. Orduan, Bergarako UNEDen (Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalan) irakasle titulua ateratzeko aukera sortu zen, eta han hasi ginen. Hiru urte egin genituen, joan eta etorri, ostiral arratsaldetik larunbat eguerdira”. Erraza ez zela izango komentatu diot: “Ez horixe. Dena (jatekoak-eta)



Ezkerretik eskuinera, Libe (beltzez, aita hil berritan), Agurtzane Mujika eta Miren lehengusua.



Ormazuri Alkiza familia, Loiolan ateratako argazkian.



Andoni eta Libe biloba guztiekin.

prest uzten nituen, eta handik etxera bueltatzen nintzenean, esaten dion neure buruari 'Orain nondik hasi behar dut

nik...". Horren aurretik, ordea, Zarautzen euskara titulua ateratzen ibili zen, Txilikurekin [Jesus Mari Olaizolarekin], eta

Zarautzera joateko, gidatzeko karneta ere atera zuen: "A zer komeria! Gurpila zulatu eta etxera deika, laguntzera joateko, eta Agustin [Egiguren] marmarka, 'Estas mujeres'", dio algaraka. Emakumezkoak ziren, bai, famili lotura estuekin, gainera, baina bideko oztopo eta zailtasun guztiak gainditu zituzten. Izugarri kostatu omen zitzaion berriz ere ikasten hastea, baina gogor egin eta lortu zuen.

Ikastolako irakasle batek, Jesus Mari Aranburuk, lo egiteko lekua behar zuela eta, urte batzuk egin zituen ormazuri-alkizatarren etxean apopilo, eta beste batzuk ere izan ziren haren atzetik: Joanito Dorronsoro, Bego Martinez eta semea (euskara ikastera), Isabel Muñagorri... "Ez dakit nola kabitzen ginen ere!", dio, eta jatorduetan beste batzuk ere inguratzeko ziren, Jesus Mariren edo Joanitoren lagunak: Joxan Ormazabal, Juan Martin Elexpuru... Liberen etxe abegitsuan, zegoena beti mahaira ateratzen zen, eta konpartitu: "Esaten diot neure buruari: 'Haiek pasako zuten gosea...', sasoikoak ziren eta; makina bat patata tortilla egingakoa naiz!".

Ikastolaren historia eta istorio ugari dakizki, ikuspegi askotatik ezagutu zuelako (guraso, irakasle, zuzendari...). Ikasgelak



hasieran etxezuloetan, ganbaretan, etxabeetan... izan ziren, eta pixkanaka Ikastola zabaldu, sendotu eta nagusitu egin zen herrian; amaiera ere ezagutu zuen, eta tristuraz akordatzen da: “Borroka handia izan zen, eta ez zen samurra izan, asko sufritu nuen”. Ikastola amaitu eta herri eskola sortu zen, erditze mingarrian, baina uste du aitortu behar zaiola bere meritua Ikastolari: “Niri izugarrizko poza ematen dit 16-17 urteko gazteak erabat euskaraz entzuteak”.

65 urterekin jubilatua zen. “Lehentxeago ere hartuko nuen. Azken urteak astunak egin zitzaizkidan; umeengatik ez, e? Klaustroak, bilerak, harremanak ere aldrebestu egin ziren...”. Erretiroa hartutakoan? Lehenengo gauza, ikastaroak eta bilerak fuera; bigarrena, igeriketa ikastaroan izena eman, artean ez baitzekien igerian. Mendian ere asko ibili dira Andoni eta biak, Indamendiren irteeretan, inguruko mendietan..., eta herrian paseatzea ere gustuko dute; goizetan, berriz, kalera irten eta kafea hartzen dute nonbaiten elkarrekin, eta *Berria* erdi bana irakurri.

Gaur larunbata da, eta seme-alabentzat eta bilobentzat etxeko atea zabalik egoten omen da, bazkaltzeko, elkarrizketa egin dugun mahai



Maria Jesus Golmaio lagun onarekin, Bartzelonara egindako bidaia batean.



Ikasleekin, Artadira perretxikoak biltzera egindako irteera batean, 1998an.

honen bueltan. Etortzen direnean, asko izanagatik, ez dut dudarik goseak ez direla

geratuko, eta Libek ondo, samur eta gozo hartuko dituela, neu hartu nauen bezala. ■■■

## Espazioko mirariak denon eskura

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

Umetan nork ez zuen astronauta izan nahi? Zerua garbi dagoenean ez al gaituzte izarrek liluratzen? Esne Bidearen argazki koloretsu bat ikustean ez al gara txundituta geratzen? Eta ez al diogu galdetzen geure buruari ea hori dena benetan hor goian dagoen? Espazioko mirarietara bisita egiteko aukera izango da urtarrilaren 17tik otsailaren 3ra bitartean Oxford aretoan egongo den Astro argazkigintza erakusketaren bidez.

Argazki erakusketa hau Aranzadi Zientzia Elkarteak Astronomia sailak antolatatu du. Sail honek 50 urteko bizitza du, eta Aranzadi barruan berezia dela dio saileko kide Virginia Garciak. “Ikerketa lanik ez dugu egiten. Euskal Herriko zeruak ez dira egokienak izarrak ikusteko, eta, gainera, astronomiako ikerketarako tresna potenteak behar izaten dira. Guk halakorik ez dugu. Batez ere astro-argazkigintzan eta dibulgazio lanetan aritzen gara”. Ostiral astronomikoak egiten dituzte hilabeteko azken ostiraletan, eta dibulgazio saioak ere antolatzen dituzte Donostiako Zorroagan duen egoitzan.

Dibulgazio lan horien artean dago urtarrilaren amaieran Zumaiara ekarriko duten erakusketa. Erakusketa honek badu berezitasun bat, eta hauxe da: irudi guztiak Euskal Herriko zeruetan aterata daudela. “Eta ez da erraza! Laino asko izateaz gain, argi kutsadura handia



dugu hemen. Erakusketa hau astroen argazkiez osatu dugu. Ostarteak daudenean saileko lagunak Berastegira joaten dira lanera. Kide batek Zaldibian duen behatoki batetik ateratako argazkiren bat, eta Nafarroako Iso herrian ateratako besteren bat ere badaude erakusketan. Argazki gehienak begi soilarekin ikusi ezin ditugun objektuenak dira: planetak, ilargia, eguzkia...”.

Lurra mugitzen ari den heinean, esan digu zeruan ikus daitezkeen elementuak ere aldatu egiten direla. “Iparraldeko izarrak hor izango ditugu beti, baina beste zeru guztia aldatzen doa, bai orduaren, baita urtarorearen arabera ere. Badaude konstelazioak uda garaian edo neguan bakarrik ikus daitezkeenak. Erakusketan denetarik dugu, urtaro desberdinetan ateratako argazkiak jaso ditugu bertan”.

Erakusketako lehen egunerako tailerra ere antolatu

dute. “Zerua ezagutzen’ du tailer txiki honek izena. Planisferioak, zeruko mapak, emango dizkiegu joaten direnei. Zeruan orientatzeko erabiltzen dugun tresna da planisferioa. Horien bitartez zeruaren mekanika zein den azalduko dugu, edota zer diren konstelazioak eta nola mugitzen diren”. Berez, familientzako ekimena izango dela azaldu digu Virginia Garciak. “Normalean, haurrek gehiago dakite astronomiaz helduek baino. Txikitan denei gustatzen zaie gai hau, baina gero ez gaitu hainbeste interesatzen”.

Ikasitako guztia urtarrilaren 22an praktikan jartzeko aukera izatea espero du Aranzadiko elkarteak. “Egun horretan ilargi eklipsea izango da, eta irteera bat egiteko asmoa dugu hura ikusteko, aurrekotan egin izan dugun bezala. Ea oraingoan ostarteak diren eta ikusteko aukera dugun”. ■■■

# AGENDA

## ERAKUSKETAK

### URTARRILAK 17-OTSAILAK 3

*Astro-argazkigintza, Aranzadi.*

## URTARRILA

### 2AN ETA 3AN

**Gabonetako parkea.**  
*Kiroldegian.*

### 3, OSTEGUNA

**Kimikarin zientzia ginkana**  
(6-12urte).  
*Oxford aretoan, 11:00-13:00etara.*

### 4, OSTIRALA

**Kimikarin zientzia ginkana**  
(6-12urte).  
*Oxford aretoan, 11:00-13:00etara.*

**Errege Magoentzako eskutitzak jasotzea.**  
*Eusebio Gurrutxaga plazan, 18:00etan.*

### 5, LARUNBATA

**Errege kabalgata.**  
*18:30ean.*

### 10, OSTEGUNA

**Zine forum.**  
*Aita Marin, 22:00etan.*

### 13, IGANDEA

**Haurrentzat antzerkia: Pinotxo, Glu glu.**  
*Aita Marin, 12:00etan eta 16:30ean.*



### 25, OSTIRALA

**Antzerkia: Rita,** Txalo konpainia.  
*Aita Marin, 22:00etan.*

### 16, ASTEAZKENA

**Meditazio saioa:** Guneren eskutik.  
*Forondan, 19:30ean.*

### 17, OSTEGUNA

**Astronomia tailerra: "Zerua Ezagutzen".**  
*Oxford aretoan, 18:30ean.*

### 24, OSTEGUNA

**Zine forum.**  
*Aita Marin, 22:00etan.*

### 27, IGANDEA

**Txakur Krosa.**  
*11:00etan.*


### 30, ASTEAZKENA

**Guneren solasaldia: Iglesias protestantes en el País Vasco y en el mundo: panorama, retos, previsiones** (Lidia Rodríguez).  
*Forondan, 19:30ean.*





# Neurosi baten historia



## NOLA HELDU NAIZ NI HONAINO

Egilea: Kattalin Miner  
Argitaratzailea: Elkar  
Argitaratze urtea: 2017  
Orrialdeak: 122  
Generoa: Narratiba



**TESTUA:** ASIER ARAKISTAIN

Kattalin Miner kazetari eta militante feministaren *Nola heldu naiz ni honaino* liburuaren proposatuko dugu gaurkoan. Liburu *Igartza* diru laguntzari esker idatzi ahal izan du eta egileak berak “neurosi baten historia” bezala definitu du.

Liburu aurkezpenetan azaldu izan duen bezala, Kattalin Minerrek liburu pop bat idaztea zuen xede, hau da, laburra eta irakurtzeko erraza izango zena, baina gai sakonez hitz egingo zuena. Eta ezin ukatu lortu, lortu duela.

Enpresan mailaz eta soldataz igotzea, herentzia bat jasotzea, etxe bat erosi ahal izatea, lagun ugari edukitzea... Arrakastaren laukitxo guztiak beteak ditu Jezabelek, protagonistak, argi du zer nahi duen bizitzan eta zirt-zart hartu ohi ditu erabakiak. Halako batean, ordea, txikikeria batekin paralizaturik geratuko da.

Emakume gazte baten nora eza darabil Kattalin Minerrek gure gizarteko hainbat gai giltzarri jorratzeko: familia eta bikote ereduak, heteroaraua, harreman batean bilatzen duguna... Baina batez ere askatasunaz mintzo da, gauzak erabakitzekeo dugun askatasunaz, aurrez ezarrita dauden gauzak hautatzeko “askatasunaz”. Eleberriko pasarte batean ederki azaltzen duen bezala, “aukeratzeko askatasun horren aurrean, batzuek determinazioz hartzen dituzte erabakiak. Aukera guztien artean, hautatutakoa, haiek irmoki erabaki izan balute bezala, eta horrela soilik uste

**MINERREK LIBURU POP BAT IDAZTEA ZUEN XEDE, HAU DA, LABURRA ETA IRAKURTZEKO ERRAZA**

duela, finean, arrainontzian bizi direla bai, baina haiek nahi dutelako”.

Egun bizi garen gizarte honetan, libre gara nahi dugun hautua egiteko, sarri ohartu gabe mugak aspaldi ezarrita daudela, kristalezko muga ikusezinak, non araututakoaz kanpo ezer ez den normala, guztiok dugula erabakitzekeo eskubidea baldin eta erabakitakoa ez den ohiko parametroetatik at gelditzen, hala ere, bada muga okerragoa, norberak bere buruari ezartzen dizkion mugak eta horiek dira, azken finean, liburu honetan Kattalin Minerrek trebezia handiz beltza zuriaren gainean proposatzen diguna. Benetan gu garena nahi dugulako garelako edo nahigabean garelako garenak.

Erraz irakurtzen den eta era berean nortasunez beteriko eleberria hona ekarri dugun hau, irakurlearen gogoia astindu eta zer pentsatua emango diona. ■■■

# Irakasten ikasten



IZASKUN RUIZ

“Esan eta ahaztuko zait, irakatsi eta gogoratuko dut, inplikatu eta ikasiko dut”  
*Benjamin Franklin*

**B**izitzeko eta adierazteko moduak definitzen du gure kultura, izaera ematen diguna, hurrengo belaunaldietan erakutsi beharreko altxorra, umeek bizi, sentitu, mantendu eta hobetu dezaten. Baina, horretarako, lehenago ikasi behar da irakasten eta hasi gara irtenbidea jartzen. Duela gutxi, gure alabaren eskolako bilera izan nuen, *Bizikasi* ekimena berria jarri baita martxan, eta bere helburua ikastetxea, garapen pertsonal zein sozialerako ikasteko espazioa izatea da. Hezkuntzan arrotzak ziren bi kontzeptu aipatu ziren bertan: elkarbizitza positiboa eta garapen soziala.

Ia denok ikasi ditugu “nini” eta “bullying” hitzen esanahia, zoritxarrez gero eta entzunagoak gaur egun, motibazio eta errespetu faltak sortutakoak. *Bizikasi* ekimena arazo horiei aurre gitera omen

dator, umeak pozik jolastuz ikusi, ukitu eta ikasteko leku seguru baten bila. Teoria gutxiago eta ekintza gehiago duen tokia, “eta gelan bihotzak protagonismo handiagoa du”. Gure ikasle garaian irakasle on BAT izan nuen, eta suertekoa izan nintzen, hari esker ikasten ikasi, gauza berriak ezagutzeko desira berpiztu eta besteen iritziak entzun eta zalantzan jartzeko gaitasuna lortu nuelako. Gure alabak suerte berdina izatea espero dut.

Ez diot inoiz ikasteari utzi, bai liburuekin, bai bizipenekin, eta ikasteko ezer ez dudana eguna, nire amaiera izango dela pentsatzen dut. Oraindik gauza asko dago ikasi eta aldatzeko, gizartea ere konturatu da arruntak ziruditen ekintza asko ez zirela hain arruntak eta ekintza txikiak ere

**UMEK HELDUOK  
GALDU DUGUN BOTERE  
BAT DUTE, IRUDIMENA,  
PROIEKTU BERRIEN  
HAZIA**

garrantzitsuak direla. Ikasi dugu hezkuntza ez dela estatikoa, konturatu gara umeak motibatu eta zaintzearen garrantziaz, badakigu kalitatezko hezkuntzaren eskubidea guztiona dela. Oraindik gauza asko dugu ikasteko, baina konturatu gara gure akatsaz eta iristen ari da aldaketa.

Eskolan, betiko ikasgaiez gain, kulturaz eta elkarbizitzen ikasi behar da, eta jarraipena izan etxean eta kalean. Umeak aske hazi eta hezi behar dira, nolakoa zaren eta nolakoa izan nahiko zenukeen jakiteko, eta hori ez da lortuko hitz galduez betetako ikasgeletan. Hezkuntza da etorkizun berri baten giltza.

Umeek helduok galdu dugun botere bat dute, irudimena, proiektu berrien hazia, eta hazi hori ondo ureztatuz gero jaioko da mundua aldatuko duen landarea. Landare horrek, ongi hazi ahal izateko, ongarri sendoa behar du, eskola, eta bere neurrian ureztatuko duten zaindaria, irakaslea eta familia. ■■■

# Polemiken artean



JUAN LUIS ROMATET

**T**irabirak eta polemikak maite ditugu, Urkulluk Windsor korapiloko korbatak maite dituen bezala. Eztabaida bat sortzen denean gure iritzia emateko prest izaten gara denok, tertuliakide onenek egiten duten bezala. Azken hilabeteotan bi polemika handi izan dira euskal kulturaren edo, hobeto esanda, euskal musikaren munduan. Berri Txarrakek MTVren kontzertuan jo behar zuen edo ez? Datorren urteko Korrikarako egindako kanta txerrikeria hutsa da bai ala ez? Onartu behar dut ez dudala iritzi sendorik: ez naiz Berri Txarraken jarraitzailea, eta Korrikako kantaren bideokliplean On Fermin ateratzean urtikaria atake bat izan nuen eta stop botoiari eman behar izan nion.

MTVk Berri Txarrak San Mameseko kontzertuan jotzera gonbidatu zuenean ez nuen gaizki ikusi, taldearentzat aukera ona izango zelakoan mundu mailan ezagutzera emateko. Pentsatzen nuen, baita ere, euskarak eta euskal musikak bozgorailu bat izango zutela milaka lagunek entzungo zuten kontzertu batean. Baina han sortu zen zalaparta aldekoen eta kontrakoen artean. Batzuen iritzi anatema hutsa zen, zeinek eta Berri Txarrakek multinazional batek antolatutako eta Bizkaiko instituzioek diruz blaitutako kontzertu horretan jotzea, jakinda, gainera, Bilbon haren aurkako mugimendua piztu zela. Besteek zioten talde profesionala dela, musikatik bizi dena, eta halako aukera bati ezin ziola uko egin. Mkgogoratu zidan orain 10 bat urteko disko batean halako gauzen aurka egiten zutela. Erantzun nion ea zer diferentzia zegoen kontzertu horretan jotzearen edo BBK Live bateko agertokira igotzearen artean. Ez dakit esperientzia ez zen kaltegarria izango taldearentzat; halako kontzertu batean jotzeagatik ez ote zituzten jarraitzaileak galduko. Auskalo, etorkizun hurbil batean ikusiko dugu hori. [Hau idatzi eta bi egunera etenaldiaren berri eman zuten. Ea gafea ni naizen]

Bigarren polemika datorren urteko Korrikaren *Klika Korrika* 2019 abestiarekin sortu da, haren egileek gaur egungo gaztediak ustez gogoko dituen erritmoen gainean eraiki dutelako bere lana. Trap, hip hop edo R&B doinuen gainean abesten dute Mad Muaselek, La Furiak eta bai, euskal kulturako frigorifiko saltzaile onena den Fermin Muguruzak. Onartu behar dut kanta ez zaidala gustatu. Baina, aizue, ohiko trikikantatik ihes egiteagatik bakarrik merezi izan du. Eta oihartzuna ere izan du: hau idazten dudanean Youtuben 186.000 aldiz ikusi dute bideoklipa. Hori bai, bada ernegatu nauen zerbait eta da kanta kritikatu duten batzuen iritzia: “Hau al da gure umeek abestu behar duten kanta?”, galdetzen zuten. @zozomikote-k txio baten bidez ederki erantzun zuen: “dena ez da saltxitxa ta pure”. Eta, zorionez, dena ez da trikipopa. ■■■

**EZTABAIDA BAT  
SORTZEN DENEAN  
GURE IRITZIA EMATEKO  
PREST IZATEN GARA  
DENOK**





8kg

1400 rpm

Inverter motorra

A+++

449€

BALEIKE  
%5  
BAZKIDEAREKIN

426€

BOSCH  
WUQ28467ES

Urtarrilaren 7tik  
31 bitartean

**TIEN 21**



[www.endañozumaia.com](http://www.endañozumaia.com)



**zumaiena**

# **ZUMAIARREK AURRERA DARAMAGUN IKASTETXEA**

Aurrematrikula

**URTARRILAREN 28tik  
OTSAILAREN 8ra**

Zumaiena, zumaiarrena